

iraila-urria 2018ko septiembre-octubre N° 3 Zerb.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ALDA

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak

Si tú cambias, el mundo cambia

HAUTESKUNDE SINDIKALAK
MARTXAN

>24. ORR

NO ES NO

>PÁG. 19

ETXEBIZITZA:
ETXEA+BIZITZA?

>42. ORR

**Pailazoez
-Porrotx, Pirritx eta Marimotots-
30 urte bete dituzte**

Euskara, bizipoza eta balioak





04

ELKARRIZKETA

**Euskara, bizipoza
eta balioen bidetik,
mundua eraldatzen**



16

ERREPORTAJEA

**Betaurreko
morerik gabe,
justizia itsu**



24

ERREPORTAJEA

**Pistoletazo
de salida a
las elecciones
sindicales**

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaritza: Iván Giménez
eta Nagore Uriarte

Koordinazioa: Nerea Ispizua

Lan taldea: Gorka Quevedo, Gabriel
Zeberio, Lander Zabaleta eta
Bixen Fernández Amezaga

Argazkiak: ALDA eta Foku. Azalaren
argazkia: Katxiporreta

Argitaratze: ELA, Euskal Sindikatua
Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

www.ela.eus/alda • alda@ela.eus

Lege gordailua: BI-195-1998

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

14

ELKARRIZKETA

**Jeanne-Rolande
Dacouagna**



ALDAko ahotsa / Editoriala03

Pirritx, Porrotx eta Marimotots04

Ainhoa Fernández12

David Hoyos14

Betaurreko morerik gabe,

Justizia itsu16

ALDAko irakurleak22

ALDArte onean.....23

Las elecciones de tu vida25

Jeanne-Rolande Dacouagna32

Rafael Poch-de-Feliu36

ErALDATzen40

Etxebizitza: etxea+bizitza.....42

KulturALDA46

ALDAko Hiztegia: Consenso47

PostALDA48

Hauteskunde sindikalak Eguneroko demokrazia

Aldizkari honen izenean, ALDAn, Lana eta Demokrazia daude, portadan azaltzen den bezala. Zein da lana eta demokrazia batzen duen prozesua? Ez da oso urrunera joan behar: hauteskunde sindikalak.

Hala ere, hauteskunde sindikalak oso modu 'underground' (nolabait esatearren) garatzen dira, komunikabideen tituluak okupatu gabe, lagunen edo auzokideen arteko elkarrizketetan agertu gabe... Oharkabean pasatzen dira, salbuespen batekin: lau urteroko epe trinkoa, orain datorrena. Komunikabideek sindikatuen ordezkariaren datuak azaleratzen dituzte, epe horren ondoko emaitzak eman arte. Eta kitto.

Hauteskunde sindikalek ez dute arreta orokorrik erakartzen, eta horretarako interesak badaude. Zenbat eta ordezkari gehiago enpresetan, orduan eta lan baldintzen aldarrikapenak ozenago entzuten dira. Enpresei eta gobernuari interesatzen ez zaien eskenatokia. Dena den, ez dugu ahaztu behar Hego Euskal Herrian 23.501 delegatu sindikalak daudela, demokratikoki hautatuak. Horrek badu bere balioa, kontuan hartuta 4.637 zinegotzi daudela, adibidez. Zinegotzietan, nork kenduko lieke euren balio demokratikoa? Inork ez. Alta, delegatu sindikalei horixe bera gertatzen zaie. Egunero.

Adibidez, Eusko Jaurlaritzak gutxiengo akordioaren aldeko apustua egin zuenean

(2016ko irailean); arau demokratikoaren aurkako eraso zuzena abian jarri zuen, hauteskunde sindikalen emaitzak errespetatu gabe. Hori bezain larria izan zen 2014ko Confedebaskeko saiakera: bere gustoko ez diren sindikatuak legez kanpo uzteko proposamena (Madrilera iritsi zena): ba al da langileen aurkako eraso bortitzagorik? Edo orain dela gutxi gertatutakoa: Eusko Jaurlaritzaren Elkarrizketa Soziala arautzeko dekretu-proiektua, sindikatu bakoitzaren ordezkari eta pisua ezerezean uzteko proposamena.

Soziologia eta zientzia politikoetan, gobernu baten autoritarismoa frogatzeko lau baldintzak bete behar dira: arau demokratikoei uko egitea (2016an gertatutakoa); arerioei zilegitasuna ukatzea (elkarrizketa sozialaren dekretua); askatasun zibilak murrizteko joera (2014ko legez kanpo uzteko saiakera); eta biolentziaren tolerantzia edo erabilera (ikusiko ez duguna, espero dugu). Hau da, lau horietatik -Eusko Jaurlaritzak bultzatu edo onartuta-, hiru pairatu ditugu ELA sindikatuan.

Honen aurrean, zein da langileen defentsa? Zilegitasun demokratikoa indartzea, zenbat garen erakustea, eta gure indarra eta autonomia noraino irits daitezkeen agerian uztea. Bi hitzetan: Hauteskunde sindikalak. Beste bi: Eguneroko demokrazia. **A**

Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargarla la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.



NEREA ISPIZUA / NAGORE URIARTE

Pirritx Porrotx Marimotots

A photograph of two women smiling and holding two colorful puppets. The woman on the left has dark curly hair and is wearing a white patterned top. The woman on the right has blonde hair, wears glasses, and a light grey cardigan. The puppets are stylized with large eyes and wide mouths. The background is a lush green tree.

Euskara, bizipoza eta balioen bidetik, Mundua eraldatzen

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek 30 urte daramate mundua euskaratik eta euskaraz eraldatzen. Halaxe arituko dira ere 2018ko Euskaraldian: hamaika egunez belarria prest eta ahoa bizi, Euskal Herrian euskaraz 365 egunez sentitu, pentsatu eta ekin arte lanean.

» **Talde moduan aurten 30 urte bete dituzue. Nola, zergatik eta zein helbururekin sortu zen taldea?**

Porrotx: Orain dela 30 urte, gu gazte ginela, Lasarte-Oriako haurren %80k A ereduan ikasten zuen. Haientzat euskara ez zen existitzen ez etxean, ezta kalean ere, eta justu-justu eskolan. Orduan, Lasarte-Oria berreuskaldundu dezagun euskal taldean genbiltzan gazte batzuk Olentzero jaialdian pailazoz jantzi ginen... eta orain arte. Egun baterako ametsa zena bizitza osorako ofizio bilakatu da. Euskaragatik eta euskararentzat sortu ginen; egun baterako hasieran, baina luzatu egin genuen bidea, beharra egun batekoa baino dezente handiagoa zelako.

» **Zuen taldea euskararik gabe existituko litzateke?**

Pirritx: Euskara taldearen esentzia da, oinarria, sustraiak. Gure taldeak ez luke zentzurik beste hizkuntza batean. Gazteleraz egitea eskaini digute, eta egia da egin izan dugula, Nikaraguan, adibidez. Oso dibertigarria izan zen, baina Pirritx, Porrotx eta Marimotots hautuz elebakarrak gara jende aurrean; gure hizkuntza delako, gure gutasuna, talde egiten gaituena eta asko dugulako euskaratik mundura emateko.

Porrotx: Gure herria txikia da, gure hizkuntza ere txikia da, eta izokinaren moduan korrontearen kontra,

saltoka ibili behar izaten dugu bizi ahal izateko. Balioak transmititzeko bide bat ere bada euskara; beste mundu bat eskaintzen digu: auzolana, elkarlana, genero ikuspegia, ekologia... Hori da euskara guretzat. Mundu aberatsa.

Marimotots: Nik hizkuntzaz gain, atzetik datorren guztia ere deskubritu nuen. Bertsoak ulertzen hasi nintzenez, adibidez, sorpresa ederra izan zen. Beste leiho bat da, zoragarria da. Hizkuntza, gainera, inportantea da sentimenduak adierazteko. Desberdina da "Te quiero" edo "Maite zaitut" esatea. Euskarak munduarekiko kontzientzia pizten dizu.

» **Zergatik balio sozialak dira hain garrantzitsuak zuen ikuskizunetan?**

Porrotx: Gu hasi ginen euskara eta alaitasunaren ikurrekin. Sketx klasikoak egiten genituen, garai hartan egiten zena ikusi eta kopia. Baina pedagogiarekin lotura bat genuenez, berehala konturatu ginen euskara eta alaitasunaz gain, balioak transmititu behar genituela, umeentzat eredu ginelako. Umorea bizitzari begiratzeko modu bat da; bizitzeko modu bat, eraikitzailea eta baikorra. Hausnarketa sakon baten ostean, gu geu hasi ginen sketxak eta ideiak sortzen, hiru ikur horiek kontuan hartuz: euskara, alaitasuna eta balioak.

Pirritx: Elkarlana bada beste ikur bat guretzat. Ideiak egunerokotasunean oinarrituta lantzen ditugu, bizi dugunaren inguruan hitz egiten dugu... Herrigintza ere inoiz agortzen ez



Goian, Pailazoak: Porrotx, Marimotots eta Pirritx

den iturri zoragarria da. Inguruan suertatzen zaizkigun gaiak eta kezka sortzen diguten kontuak azaleratzen ditugu. Urtero mundua konpontzen saiatzen gara, konpontzen dugu, eta hurrengo urtean berriro dugu konpontzeko.

Porrotx: Behin Nikaraguara bidaiatu genuen. Bertan haur langileen egoera ezagutu genuen eta horretan oinarritutako ikuskizun bat sortu genuen. Beste behin, bizilagun bat -bi ume txinatar adoptatuta zituenahurbildu zitzaigun familiaren eredu aniztasuna transmititzeko material egokirik ez zegoela esatera. Orduan sortu genuen Familia mila kolore

Una de las razones de nuestro éxito es la relación tan estrecha que mantenemos con nuestros seguidores, pequeños y mayores. Nuestros espectáculos no acaban con un agur, eskerrikasko. Nos bajamos del escenario y empezamos a dar y recibir besos y abrazos durante mucho tiempo. Algunos dicen: ¡qué paciencia tenéis! Nosotros respondemos que es un lujo. La gente nos devuelve amor por triplicado.



proiektua, "Gehitu", "Aspanogi", "Ume alai" eta "Geroa" elkarteekin elkarlanean. Oso aberatsa izan zen. Bai pertsonaiak, baita gaiak ere, egunerokotasunarekin lotuta daude: egunkaririk, irratirik, ingurutik, herrigintzatik jasotako ideiak plazaratzen ditugu. Adibide garbiena da Aiora haurdun geratu zenean (bikiak ziren) Pirritx momentu berean haurdun geratu zela.

Marimotots: Gerora, Aiorak haurrak izan zituenean, Pupu eta Lore jaio ziren gure taldean.

Porrotx: Inoiz gertatu izan zaigu guk ideia sortzea eta garatzea, eta gero bizitza errealean ikustea. Marimototsekin gertatu zen hori.

Marimotots: Marimototsen ikuskizunean, bere ama kontenedore batean bizi zen eta Marimotots bera, arbola batean. Handik hilabete batzutura, Bilbon pertsona bat kontenedore batean bizi zela eta ito egin zela irakurri genuen egunkarian.

El euskara es la esencia de nuestro grupo, la base, la raíz. Nuestro trabajo no tiene sentido en otra lengua. Nos han propuesto actuar en castellano, y alguna vez lo hemos hecho; por ejemplo, en Nicaragua. Pero Pirritx, Porrotx y Marimotots, por compromiso, hemos optado por trabajar solo en euskara. El euskara es nuestra lengua, lo que nos cohesionan como grupo y, además, estamos convencidos de que podemos ofrecer mucho al mundo en y desde el euskara.

»Haurrek maite zaituztete, baina baita familiek ere. Zein da zuen arrakastaren sekretua?

Marimotots: Jendearekiko daukagun hurbiltasuna azpimarratuko nuke. Gure ikuskizunak ez dira bukatzen "eskerrik asko" esanez. Agertokitik salto egiten dugu, umeengana, gurasoengana, aiton-amonengana goaz denak besarkatzera, elkar musukatzera... Gure emanaldiak ederrak dira, baina hori bezain politikak dira elkarri musuak eta besarkadak emateko momentuak.

Pirritx: Sekretua... Ba amonak sukaldean jartzen duen maitasuna bezala: mimoak. Amonarena beti dago hain goxoa... Harrigarria da, magia da. Gu ere saiatzen gara amonak sukaldatzen duen bezala, oholtza gainean eta oholtzatik kanpo ere, haurrak eta zaleak txeraz artatzen. Eta egia da maitasun handia ematen dugula, baina bueltan bikoiztuta eta hirukoiztuta jasotzen dugu. Esker oneko afizioa dugu ofizio bilakatuta. Guk saioa amaitu eta besarkadak eta ordainik ez duten begiradak jasotzen ditugu trukean.

Marimotots: Batzuetan esaten digute: "Zelako pazientzia duzuen!". Guk beti erantzuten dugu: "Pazientzia? Gurea luxu eta pribilegio bat da".

Porrotx: Guk, zuek sindikatu bezala, badugu pankarta bat eta oihu bateratua, aldarrria. Baina pailazogintzak badu alaitasunetik

abiatuta aldarrikatzeko aukera, beste mundu bat irudikatze eta amesteko tresna bat da umorea; sekulako erraminta da irriaren bidez, dantzaren bidez, musuaren bidez gauzak aldatzeko. Hori ere bada gure sekretua, esandako guztiaren konbinazioa.

»30 urteko ibilbidean txoko guztiak ezagutu dituzue. Gustukoa al duzue bizi garen Euskal Herri hau? Zein herri nahiko zenukete?

Porrotx: Munduko beste leku askotako egoera ikusita, egia da gure egoera hobea dela. Zorionez, Euskal Herria bada auzolanaren esentzia duen herri bat. Herri aurrerakoia da oro har, herri langilea... Baina zalantzarik gabe, gurean ere bada zer hobetu.

Pirritx: Ondo dago horretaz ohartzea, ipar bat izatea eta horrantz joatea auzolanean, talde lanean, bakoitza beretik. Gu pailazogintzatik, beste batzuk sindikalgintzatik, hezkuntzatik... Eraldatu nahi izate hori oso garrantzitsua da.

Porrotx: Globalizazioa bizi dugu eta guran ere eragina du, bere alde on eta txarrekin. Gaur egun ez dago mugarik krisientzat, ez ekonomikoentzat, ezta balioen krisientzat ere. Mundua oso injustua da, gerrak daude, zapalkuntzak daude, errefuxiatuak... eta egoera horrek guztiok zipiztintzen gaitu. >>>

» **Harira... Talde konprometitua zarete. Zeintzuk dira zuen konpromisoak talde eta pertsona moduan?**

Porrotx: Garai zailetan, krisi garaian, arrisku bikoitza dago: zapaltzaileak gainontzekoak zapaltzen jarraitzeko aukera ikus dezake; baina era berean, zapaldua dena bera, bera baino ahulagoak direnak zapaltzeko arriskua dago. Pailazook garbi daukagu elkartasunarena gai garrantzitsua dela, herri batek ahulenekin hartzen duen jarrerak herri horren norabidea markatu dezakeela. Elkartasuna justiziatik, berdintasunetik, enpatiatik eraikiz gero, gizarte justuago baten alde ari gara, eta garrantzitsuena: bidean inor zapaldu gabe eta zapalduak izan gabe. Izan ere, auzolana eta bizipoza izan daitezke gizarte bat eraikitzeko bi zutabe.

Europar bertan homofobia sufritzen dugu; xenofobia hedatzen ari da, eta gu ere hor gaude. Alertan egon behar dugu, lanean. Sareak sortu behar ditugu, txikiok bat egiteko sareak, ekonomian, hezkuntzan edo gizarte arloko gai ezberdinetan. Eta saretze horretatik nolabaiteko txertoa sortu behar dugu fobia guztien kontra. Euskal Herrian ere badugu, eta hortan gaude gu.

Pirritx: Oso garrantzitsua da ezberdinen artean zerk elkartzen gaituen pentsatzea, hortik abiatu eta saretuz joan. Hori ere klabea da eraldatzeko.

Porrotx: Zorionez Euskal Herrian herrigintza oparoa dugu. Ikusi besterik ez dago genero ikuspegitik nolako olatua sortu den, pentsiodunak hor daude, "Gure esku"ren ekimena edota Altsasuko gazteen sententziaren kontrako erantzun soziala... Arazoak baditugu, baina zalantzarik gabe, itxaropentsu izateko eta baikorrak izateko motiborik ere bai.

Para nosotros la solidaridad es una cuestión muy importante porque la postura que un pueblo mantiene con los más débiles marca su camino. Solidaridad desde la justicia, desde la igualdad. Si, además, se construye con empatía, estaremos trabajando por una sociedad más justa. Y en ese construir no podemos olvidar ni el trabajo en común ni la alegría de vivir.



Gazteria orokorrean - denetarik dago, noski- gu izan ginena baina aurrerakoiagoa da pentsakeran, emozionalki... Gazteria ederra daukagu eta, dudarik gabe, etorkizun ederra amestu eta irudikatze motiboak eta itxaropena.

» **Deigarria da pailazoak beti gizonetzkoak izan direla. Honetan ere haustura ekarri duzue: Aiora, Mertxe...**

Pirritx: Talderatu ginenean gutxiengoa ginen baina orain gehienak emakumeak gara, asko dugulako gizarteari emateko. Taldetik hasita, gure begirada ezinbestekoa da.

Marimotots: Pailazogintzaren historian atzera begiratzen badugu gizonetzkoak nagusi direla ikusiko dugu. Haiek horrela hasi ziren.

Zorionez, gizon hauek begiak eta belarriak zabalik eduki zituzten eta konturatu ziren emakumezkoak ere behar zirela. Horretan ere, gizartean bezala, emakumeak hasi dira euren tokia hartzen. Orain gehiago gara.

Porrotx: Gure taldearen kasuan, sortu ginenean egun baterako izan zen, baina saltoa ematea erabaki genuenean ezinbestekoa iruditu zitzaigun emakumeen parte hartzea taldean. Ni neu eta Porrotx emakumeak sentitzen gara, kutsakorra da...Argi dugu emakumeen munduarekiko begirada ezinbestekoa dela.

(Marimototsek alde egin behar du medikuarenera. Elkarrizketa jarraitzen dugu Pirritx eta Porrotxekin. Agur eta eskerrik asko, Mertxe)

»Zuen azken ikuskizunean aipatzen duzue nork agintzen duen etxean, eskolan... Nork agintzen du talde honetan?

Pirritx: Aurten bizikidetzaren gaia landu dugu eta, hain zuzen, saiatu gara gure baitako haur horrek egin ohi duen galdera horri erantzuten, alegia, nork agintzen du? Erabakiak borobilean hartu behar ditugu eta borobilean denok berdinak gara. Lurrean eseri, begietara elkarri begiratu eta hor partekatzen ditugu gure galderak, kezkak, grinak, ametsak; hor saiatzeko gara arazoei konponbidea topatzen, gauzak erabakitzen...

Porrotx: Erabakiak, orokorrean, demokratizatu behar dira, bizitzaren esparru intimoetatik hasita. Denok erabakitzen badugu, arduratsuagoak izango gara. Uxue Alberdik egindako ipuin batean ume batek amari galdetzen dio: "Mundua aldatzeko zenbat borobil behar dira, amatxo?" Argi dago borobil txikiekin hasi behar dugula: eskolan, koadrilan, kalean, Euskal Herrian...

Pirritx: Eta haurrei euren lekua eman behar zaie.

»Zuen taldeari konpromiso soziala dario, baina kezka berezia antzematen zaizue gaixo dauden haurrekiko, batik bat minbizia dutenekiko: horiek dira zuen pirata bereziak.

Porrotx: `Aspanovas´ eta `Aspanogi´ minbizia duten haurren gurasoen elkarteak dira, eta haien eskutik ospitalera bisitak egiten hasi ginen. Asko ikasi dugu. Umeei

botikagatik ilea erortzen zaienean zapiak ematen diete babesa, indarra eta pirata izateko aukera; beste batek zapidun ilerik gabeko gaixo bat ikusten duen tokian guk pirata ikusten dugu. Denontzako irakaspena da: bizitzeko grina, egunero jaiki, daukagun guztiaz jabetu, irribarre egin eta umoretsu bizi. Hori eman digute pirata zapi horiek eta zapi horren azpian dauden ume horiek.

Pirritx: Gai horiekin lan egiteak eman digu umoreari buruz hausnartzeko parada. Izan ere, umorea sketx barregarri bat izan daiteke guretzat, baina bizimodua izatera igaro da: jarrera baikor bat, aurrerakoia, errespetuzkoa eta itxaropenez beteta.

»"Sentitu, pentsatu, ekin". Hori da zuen ikuskizun baten izenburua. Bizitza filosofia ote?

Pirritx: Juan Gorriti eskultoreak erakutsi zigun nola egiten zuen lana azaltzerakoan. Bihotza, burua, eskuak, sentitu, pentsatu, ekin. Gorritik hala egiten ditu eskulturak, eta gurea ere halaxe egiten dugu. Horrek laburtzen du bizitzan dugun jarrera.

Porrotx: Mundu honetara zoriontsu izatera etorri gara. Dударik gabe, sentitu, pentsatu, ekin... beti elkarrekin. Sentimenduak, pentsamenduak eta ekimenak partekatutako direnean fruituak lortzen dira eta bizipoza ere handiagoa da beti. Edozein proiektu, edozein egitasmo, edozein garaipen... beti da goxoagoa.

»Urteotako balantzea. Zer izan da hobereena? Eta okerrenea?

Pirritx: Hoberena lagunak; egunegun eta urterik urte jorratutako bidean izan ditugun zailtasunak medio, izan ditugun gauza on eta txarretan ezagutu dugun jendea. Gogoan geratu zaizkigun argazki eta aurpegi eder horiek.

Porrotx: Gure taldearen ibilbidea gure herriaren ibilbidearekin bat doa, beraz, gure herrian une tristean egon diren bezala, geuk ere halaxe sufritu ditugu. Hala ere, herriarekin batera erori eta altxatzen ikasi dugu, pertsonalki eta talde bezala. Gure pozik handiena da ikustea gure herria aurrera doala eta gu herriarekin batera goazela.

Gu pozik bizi gara. Asko eman digu gure lanak. Jendea oso esker onekoa da gurekin, eta horrek irakatsi digu esker onekoak izaten besteekin: kafe bat prestatzen digunarekin, zaborra kalean garbitzen duenarekin, langile guztiekin... Denei adierazi beharko genieke egiten duten lana garrantzitsua eta beharrezkoa dela, baloratuak sentitu daitezten. Izan ere, lana maitasunez egiten dugunean, denon mesedetan da. Esan bezala gu zoriontsuak gara, baina zoriontsuagoak izango gara mundu justuago batean. Gure ametsak horri begira daude eta elkarrekin lortuko ditugu, bakoitzak bere pankartatik, bere aldarrikapenetik.

»Urte batzuk ditugunok gogoan dugu taldeak 2001ean Aioraren militantziaren ondorioz jasan zuen kanpaina mediatiko eta boikot izugarria. Denboraren perspektiba medio, nola gogoratzen duzu hura? Nola eragin zion taldeari?

Pirritx: Euskal Herriko edozein familiek pairatu ditu sufrimendua eta tristura handiak; guri ere hala egokitu zitzaigun bete-betean.

Tenemos que cambiar el mundo. Y todos y todas, desde nuestra pancarta, podemos hacerlo. También creemos que no se puede poner fronteras a lo que llega de fuera, pero podemos crear nuestros propios proyectos y referentes culturales, en Euskal Herria y para Euskal Herria.

Somos muy felices en nuestro trabajo. La gente es inmensamente generosa con nosotros, y eso nos ha hecho valorar también el trabajo de los demás: el de quien nos sirve el café, el que quien limpia las calles, la profesora de la escuela... Entre todos y todas construimos esta sociedad, y el trabajo de todos es fundamental para el bienestar común.

Amesgaiztoa izan zen, baina, aldi berean ederra izan zen jaso genuen maitasun uholdea. Ederra da Euskal Herriak zauri horiek sendatzeko daukan ukendu magikoa. Gauza txarrenetan ere onena topatzen erakutsi didate pailazoek.

Porrotx: Bat-batean 30-40 saio erori zitzaizkigun... baina beste batzuk sortu ziren orekatzeko. Gogoan dugu ELAK deitu zigula Maiatzaren Lehenean saio bat egiteko. Elkartasuna oso erreala izan zen.

» **Zorionez, bestelako jendarte batean bizi gara gaur. Nola ikusten duzue etorkizuna, talde eta herritar gisa?**

Porrotx: Gure pailazo taldean hainbat hausnarketa egiten ditugu: nola sustatu aldaketak, nola lortu beste mundu bat ahal den modu partekatzaile, demokratiko eta baketsuenean. Mundua aldatzeko has gaitetzen txikitasunetik, etxetik, gure arteko harremanak aldatuz: koadrilan, eskolan, herrian... Hortik abiatu behar dugu.

Mundua aldatu behar dugu eta geuk etorkizunari ilusioz begiratzen diogu jakin badakigulako eragin dezakegula. Denon esku dago. Beraz, erabil ditzagun indar horiek eragiteko, eta mugimendu bat sortzeko. Horretan datza pailazoek sortutako Irrien Lagunak Kluba, Elkar taldearekin eta Berriarekin batera. Izan ere, herri bakoitzak bere pertsonaiak izan behar ditu, gure hizkuntzatik eta kulturatik abiatuta gure balioak transmititzeko. Kanpotik datorrenari ezin zaio mugarik jarri, baina proiektu propioa bultzatu daiteke, Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat egina. **A**

PINTURAREN AZPIAN

PORROTX: Jose Mari Agirretxe Lasarte-Orian jaio zen orain dela 54 urte. Guraso euskaldunak ditu, baserritarrak biak. Eskola nazionaletan ikasia, bizitza soziala gaztelaniaz egindakoa da. Gaztea zela, ordea, AEKn izena ematea erabaki zuen; horri esker, euskaraz alfabetatu eta magisteritza ere euskaraz ikasi ahal izan zuen. Bide horretan sakondu nahian Lasarteko euskara taldera batu zen. Egun, Porrotxek 30 urte ditu. Hasiera batean Jose Marik eman zion Porrotxi bere ibilera, bere hizkera, bere inozentzia; baina poliki-poliki, Porrotxek eman zizkion Jose Mariri bere muxuak, bere besarkadak eta bere goxotasuna; gaur egun bat eta bakarra dira.

PIRRITX: Ni Aiora Zulaika naiz, Lasarte-Oriakoa. Gurasoek egin zidaten oparirik politena ikasketak egiteko aukera ematea izan zen. Beti animatu naute maite dudana egitera. Sei urterekin, adibidez, txistua jotzen ikasteko grina piztu zitzaidan. Egia esan, beti izan naiz oso saltseroa herrian, euskararen aldeko ekintzatan murgilduta, umeeekin, ikastolaren munduan buru-belarri, gure irla txiki hartan. Arte Ederretan lizentziatua, musika ikasketak egin nituen eta 20 urte daramatzat Pirritxekin. Taldeak erakutsi dit barruan izan dudak haur hori mantentzen, ateratzen, azalera eta emakume askea izaten. Gaur egun, hiru semearen ama naiz eta Haur Hezkuntzako ikaslea naiz. 43 urte ditut nik, 20 urte Pirritxek; guztira, nire 63 urterekin, oso pozik bizi naiz.

MARIMOTOTS: Mertxe Rodriguez naiz, Lasarte-Orian jaioa. Gurasoak Extremaduratik etorri ziren, duela 58 urte. Seme-alaba guztiak hemen jaio ginen. Ikasketak eskola nazionaletan egin nituen, erdaraz. Euskararekin izan nuen lehenengo kontaktua seigarren mailan izan zen; gogoan dut irakasgaietako bat zela, eta ez nuela ezer ulertzen. Antzerki munduan sartu nintzen gero eta hainbat urtez aritu nintzen ikasten. Egun batean zortea izan nuen eta pailazoekin topo egin nuen herrian. Amona Josefina papera egitea eskaini zidaten orduan, eta hainbat urte pertsonaia ezberdinak antzeztan ibili eta gero, Marimototsen papera ailegatu zen. Institutuan hasi nintzenean, lagun euskaldun batzuk banituen. Gogoan daukat kriston inbidia ematen zidala eurak euskaraz entzuteak; era berean, nik ezin ulertzeak lotsa ematen zidan. Orduan erabaki nuen AEKn izena eman eta euskara ikasten hastea. Ondo akordatzeko naiz lehendabiziko aldiz euskaraz amestu nuen egunaz. Ametsa ez dut gogoan, baina bai goizean begiak ireki eta sentitu nuen poz hura. Egun horretatik aurrera buruko minak pasa zitzaizkidan; klik egin zidan buruak, zoriontsu sentitu nintzen, eta hala sentitzen naiz egun ere. Azken finean, gure helburua bizitza honetan zoriontsua izatea da.

Aiora Zulaika (Pirritx), Mertxe Rodríguez (Marimotots) y Josemari Agirretxe (Porrotx) son los tres componente actuales de Pailazoak, un proyecto cultural y social que cumple 30 años fiel al euskara, la alegría de vivir y los valores

Gure lagunik onenak!



NEREA ISPIZUA

Pronto se cumplirán tres décadas de aquel 24 de diciembre de 1998 en el que tres jóvenes de Lasarte Oria decidieron vestirse de payasos para celebrar la llegada del Olentzero. Lo que empezó siendo la locura maravillosa de un día ha ido creciendo de manera imparable hasta nuestros días. “El sueño de un día se ha convertido en un oficio maravilloso para toda la vida. Nacimos por y para el euskera, y aquí seguimos”, relata Josemari Agirretxe, Porrotx, el único superviviente del grupo original.


Hoy por hoy, Pailazoak -más conocidos por el gran público como Pirritx, Porrotx eta Marimotots- son un proyecto cultural muy serio, en el que trabajan más de una docena

de personas, que año tras año sorprende a sus seguidores con un nuevo espectáculo en el que abordan temas sociales de actualidad, enfocados desde los valores y en un formato diferente: música, canciones y baile, interpretadas con enormes dosis de alegría y amor. Y todo ello, en euskara, “su esencia”.

Pero si las actuaciones de este grupo de payasos suelen ser auténticas inyecciones de optimismo, en las que centenares de peques y adultos acaban de pie cantando y bailando tras arreglar el mundo en un par de horas gracias a sus gafas de colores, no es menos mágico lo que ocurre cuando se bajan del escenario: los cientos de besos y abrazos que reparten,

los cientos de fotos y selfies que se hacen, los cientos de carteles y fotos que firman... Y es que la conexión estrecha y nada ficticia con sus seguidores -bajitos y no tanto-, su compromiso social y personal es, sin duda, el secreto a voces de su éxito.

Estas payasas -en femenino, porque las mujeres son mayoría en el grupo- comparten con su público las alegrías, pero también las tristezas. Familiares de niños y niñas enfermos o con algún tipo de discapacidad son testigos en primera persona de la generosidad de Josemari, Aiora y Mertxe. No es casual que ellos visibilicen y vean piratas donde otros sólo ven a niños enfermos protegidos con pañuelos que cubren su cabeza desnuda, fruto de la enfermedad. “Estos niños y niñas, esos y esas piratas nos han hecho reflexionar y nos han enseñado mucho sobre el sentido de la existencia y cómo el humor puede aportar una forma de vivir diferente, positiva, constructiva, respetuosa y cargada de esperanza”, aseguran. “Nos han enseñado a mirar a los ojos de las personas”, confiesan.

Así las cosas, a nadie puede extrañar la auténtica declaración de amor que recibió Porrotx hace un tiempo antes de una actuación. “Se nos acercó una madre y nos dijo: os traigo una nota de mi hijo. Una amiga me ha dicho que está mal escrita, pero que vosotros la entenderéis”... La nota ponía: “Porrotx, zu zara nire lagun hobetoagoa”, relatan. Seguro que nunca un error gramatical en euskera les pareció tan hermoso... 



Ainhoa Fernández, irakaslea

Kontrapas (Nafarroan, oraindik ere)

Aunque parezca
mentira, casi
seis siglos
después tenemos
que seguir
defendiendo
el euskera en
Navarra tal como
Bernart Etxepare
hizo en aquellos
versos titulados
Kontrapas

Gezurra badirudi ere, ia sei mende igarota, ura bere bidean, euskara defendatzen jarraitu behar dugu Nafarroan, Bernart Etxeparek Kontrapas izeneko bertsoetan egin zuen bezala. Bertsook, zoritxarrez, ez daude demodé. Hark, garbi ikusi zuen euskara biziko bazen, idatzi egin beharko zela eta prestigioa eman beharko zitzaiola. Eta horrela, Linguae Vasconum Primitiae sortu, eta euskara “plazara” ialgi behar zela aldarrikatu zuen.

Gatozen, baina, XXI. mendera. Une honetan, eskubide linguistikoei dagokienez, inoiz eduki ez dugun aukera dugu Nafarroan: euskararen alde politika egiteko Administrazioa dugu. Surrealista badirudi ere, euskararen herrian ezin gara euskaraz bizi. Danimarkako biztanle bati esango bagenio Copenhagen ezin dela danieraz bizi, antzarrak ferratzera bidaliko gintuzke. Baina Nafarroan, horrela da. Asmo onak daude euskararen alde, orohar, baina gure hizkuntzak ez du etorkizunik izango museo bateko apalategian gordeta utziz gero. Asmoak barik, ekintzak eta politika zuzenak behar dira, euskararen aldeko diskriminazio positiboak ekarriko dutenak. Euskarak etorkizuna izango du, ahoetan, kaleetan, eskoletan, lantegietan, administrazioetan eta gizartean erabiltzen bada. Hau guztia lortzeko, bi ildo ezarriko nituzke:

PRESTIGIOA

Alde batetik, prestigioa. Euskarari zor zaion ospea itzuli egin behar zaio. Puntu honetan gure politikoei dute ardurarik handiena. Egungo presidentea, Uxue Barkos, eta Iruñeko alkatea, Joseba Asirón, euskaldunak dira. Unerik egokiena dugu, beraz, politikarien interbentzioak euskaraz izan daitezen. Azken bolada honetan irakurri dudana liburu batek beste ikuspuntu bat eman dit euskararen egoeraren

Aunque parezca surrealista, en Navarra, el país del euskara, no podemos vivir en nuestra lengua. La buena voluntad no basta; son necesarias acciones y políticas directas en favor del euskara, porque nuestra lengua sólo tendrá futuro si se utiliza en la calle, escuelas, centros de trabajo, en la Administración... En la sociedad, en general.

Haber rechazado en 1994 la ampliación de la zona mixta nos ha traído 30 años de retraso, sobre todo en la Enseñanza. La Administración tiene la pelota en su tejado, y el tiempo corre. Pero el euskera no puede esperar más en Navarra

inguruan Nafarroan, eta zein modu "naturalean" galdu egin zen zenbait zonaldetan. Etxeparek XVI. mendean euskara idatzi behar zela eta plazara atera behar zela aldarrikatzen zuen bitartean, Nafarroako zenbait administrazioetan eta epaitegitan, herritarrak ongi artatzeko funtzionarioak elebidunak izan behar zutela derrigorrezkotzat jotzen zuten (XXI. mendean, ordea, honen inguruan zalapartaka gabiltza). Monteano Sorbetek "El iceberg Navarro" liburuan, XVI. mendeko dokumentuak aztertzen ditu, eta egiaztatzen du euskara zela eguneroko hizkuntza Monreal, Artaxoa, Uxue eta horrelako herrietan. Baziren, noski, elebidunak: jende ikasia. Hauek erromantzea edota latina bazekiten eta hizkuntza hauek idazten zirenez, prestigiodunak ziren. Euskara, ordea, kaleko hizkuntza zen, prestigiorik gabea. Eta horrela, oso

modu "naturalean", erromantzeak lekua kenduko dio euskarari, baita kalean ere. Diglosia egoera sortuko da, gaur arte. Administrazioan eta irakaskuntzan sartu ezean, hizkuntza bat ez dago egiazko elebitasun egoeran. Beraz, eta egoera benetako elebitasuna izatea nahi baldin badugu, Administrazioak apustu sendoa egin beharko du horren alde.

BALIABIDEAK BADAUDE

Bestetik, baliabideak daude, legalak, hain zuzen. Onartu berri den 103/2017 Foru Dekretua, administrazio publikoetako euskararen erabilera arautzen duena, ez da urrats handia izan. Baina helburura iristeko aurrera pausua izan da. ELAK baiezkoa eman zuen; sindikatu bakarra izan zen. Batzuk eskasa izateagatik, beste batzuk gehiegi izateagatik, ez zioten dekretuari babesik eman.

Guk, ordea, babesa eman baino lehen zera galdetu genion geure buruari: zer da hobe, oraingo egoera ala dekretu honek ekarriko duena? Garbi dago erantzuna. Nafarroan herritar guztiok eskubide linguistiko berberak izatea nahi badugu, administrazioak aurrera egin behar du bide horretan, urratsez urrats, maximalismorik gabe. Hala ere, derrigorrezkotzat jotzen dugu 18/1986ko Foru Legea indargabetzea, zonifikazioak maila desberdinetako herritarrak sortzen dituelako. Honek ez du esan nahi Lesakan dagoen egoera Caparrosora zabalduko denik derrigorrean eta bat-batean. Baizik eta Lesakan bizi denak eta Caparrosen bizi denak, eskubide linguistiko berberak izango dituela.

EZIN DUGU BESTE AUKERA BAT GALDU

1994an eremu mistoari ezetza emateak 30 urteko atzerapena ekarri digu, irakaskuntzan batez ere. Euskararekin kontakturik izan ez duenak, ez du horren beharrik ikusiko; baina 1994an D ereduaren eremu guztietara zabalduta izan balitz, egungo egoera beste bat izango litzateke. Iruñerriko euskararen egoeraren bilakaera besterik ez da ikusi behar. Iruñerriko D ereduko guraso askok, A ereduan ikasi zuten. Hizkuntzarekin kontaktua izan zuten, nahiz eta euskararekin beste harremanik ez izan ez familian, ez inguruan. Batzuk, inoiz eduki ez dutelako, beste batzuk, asko, aitona-amonak euskararen transmisioa eten egin zutelako, beldurragatik gehien bat. Hau ere oso "naturala".

Laburbilduz, Administrazioak du pilota teilatuan eta denbora aurrera doa. Baina euskarak ezin du gehiago itxaron Nafarroan. ▲





David Hoyos, profesor de Economía en la UPV

Y vasca: el viaje a ninguna parte

Europako Kontuen Auzitegiaren azken txostenean berretsi da Espainiako (eta EAEko) abiadura handiko trenaren eredia zama astuna dela zergadunentzat, arrazoizko plangintzarik ez egiteagatik, obretan gainkostuak izateagatik eta efizientziarik ezagatik.

El último informe del Tribunal de Cuentas Europeo (TCE) no ha hecho sino confirmar lo que se viene argumentando desde hace ya más de una década: el modelo ferroviario español (y vasco) de alta velocidad es una pesada carga para el contribuyente en forma de ausencia de planificación racional, sobrecostes en las obras e ineficiencia.

Un posicionamiento crítico que, por otro lado, ya habían mostrado los tribunales de cuentas portugués (que lo tildó en 2012 de "megalómano"), francés (que zanjó en 2014 que la conexión en alta velocidad por Hendaia traería mayores pérdidas al modelo ferroviario francés) y español, que en 2015 alertó de la delicada situación financiera del AVE y el desorbitado nivel de endeudamiento de ADIF, quien a día de hoy es la empresa pública española más endeudada (18.000 millones y subiendo).

Constata, de hecho, lo que en el ámbito académico hace tiempo que era un debate cerrado: la viabilidad de una conexión típica de alta velocidad ferroviaria requiere un mínimo de 9 millones de viajeros en su primer año de funcionamiento (ADIF espera 1,5 millones de viajeros de larga distancia para la Y vasca).

Sin embargo, no parece que este último mazazo europeo haya modificado un ápice el discurso oficial. Al contrario, la consejera Tapia declaró que el informe no hace sino reclamar que se aceleraran los trabajos para su inmediata puesta en marcha. Por su parte, la europarlamentaria Izaskun Bilbao añadía al argumentario de Lakua el carácter transfronterizo y mixto de la Y vasca y todos los beneficios que traería a la sociedad vasca.

DECISIÓN INJUSTIFICABLE

Pero, ¿realmente el informe del TCE justifica la inversión en la Y vasca y su urgente puesta en funcionamiento?

Más bien al contrario. Veamos: (1) "La decisión de construir líneas de alta velocidad se basa en consideraciones políticas y, por lo general, no se recurre al análisis coste-beneficio para justificar una toma de decisiones eficiente" (p. 33); (2) "sobrecostes y retrasos en las obras son la norma en lugar de la excepción" (p. 34); y (3) nueve de las catorce líneas auditadas (incluyendo la Y vasca) no cuentan con un número de pasajeros potenciales suficientemente elevado en sus zonas de influencia para que tengan éxito" (p. 47).

Es decir, tal y como el catedrático de la Universidad de Barcelona Germá Bel y yo expusimos en la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial del Parlamento vasco en 2015: (1) La Y vasca nunca debió construirse porque no supera un análisis coste-beneficio; (2) el proyecto se presupuestó en 3.000 millones de euros (1997) y actualmente está en 5.767 millones (sin incluir accesos a las capitales); y (3) la explotación comercial de la Y vasca requerirá subvenciones públicas permanentes.

DERROCHE DE DINERO PÚBLICO

El proyecto de Y vasca es un derroche injustificado de dinero público: una inversión cercana a los 10.000 millones de euros para llegar en tren a Madrid 41 minutos antes desde Bilbao, aunque se seguirá tardando 20 minutos menos en coche. Y esto con unas tarifas donde se estima que un trayecto Bilbao-Madrid cueste 34 euros en autobús; 40, en coche; 51, en ferrocarril convencional; 75, en AVE, y 180, en avión.

Y, por aquello de que nos conecta con Europa, está previsto que

Euskal Y-a inoiz ez da bideragarria izan, kostua/irabazia analisia gaintitzen ez duelako. Proiektuak 3.000 milioi euroko aurrekontua zuen 1997an, eta orain badago 5.767 milioitan (hiriburuetarako sarbideak barne hartu gabe). Gainera, euskal Y-a ustiatu ahal izateko, etengabeko diru-laguntza publikoak beharko dira.

circule un tren diario entre Bilbao y París. Todo esto, por cierto, con datos del propio ADIF.

Es más, dos pilares que han justificado históricamente el proyecto (transporte mixto de mercancías y sostenibilidad ambiental) se han demostrado falsos. En primer lugar, todo parece indicar que ni la planificación europea (corredor atlántico de mercancías) ni la de ADIF (estudios informativos recientes de la conexión Vitoria-Burgos y del proyecto de corredor ferroviario Cantábrico-Mediterráneo), ni la del Puerto de Bilbao (apuesta por el puerto seco de Pancorbo) prevé, en ningún caso, la salida de mercancías del puerto por la Y vasca, sino por Orduña y conexión con la red convencional vía Miranda de Ebro.

En segundo lugar, a pesar de que en términos generales se ha venido argumentando que el transporte ferroviario de alta velocidad acarrea beneficios ambientales debido a su menor huella de carbono, hay que tener en cuenta, como señala el propio informe del TCE, “que puede llevar décadas de explotación para compensar las emisiones de CO2 producidas en la construcción de la infraestructura.”

Efectivamente, tal y como demostramos en un artículo recientemente publicado en la revista científica *Research in Transportation Economics*, la explotación de la Y vasca no compensará nunca las emisiones de CO2 ni la energía empleada en su construcción. En otras palabras, la gran apuesta por la sostenibilidad del Gobierno vasco, lejos de reducir emisiones y consumo de energía, lo aumenta.

INUTILIDAD SOCIAL

Cada vez resulta más difícil defender la utilidad social de la infraestructura más cara jamás construida en Euskadi, pero más sorprendente resulta aún la incapacidad de las instituciones públicas para fomentar la participación social, el debate de ideas y el rendimiento de cuentas.

Que la Y vasca sirva, al menos, como ejemplo para las generaciones futuras de lo que no se debe hacer. **A**



En la imagen, obras del TAV

Betaurreko morerik gabe, Justizia itsu!

‘La Manada’ auziaren epaiak hautsak ditu. Justizia gizartearen atzetik doala sentitu dute askok. Hala da? Maria Viadero eta Maitena Monroyren iritziak jaso ditugu, Mugarik Gabeko aktibista feminista eta genero indarkerian aditua, hurrenez hurren.

NAGORE URIARTE



Maria Viadero

Indarkeria matxista jasan duten emakumeei salaketa jartzeko egiten zaien deia ozen entzuten da bazter guztietan. Denuntzia jarrita, ordea, euren ahotsari entzungor egitea leporatu diote askok justizia sistemari, patriarkala dela epaitzeraino. Baina, zeri buruz ari gara zehazki?

“Justizia patriarkalaz ari garenean, matxismoa bereziki justizian erreproduzitzen dela esaten ari gara”, laburbildu du Maria Viaderok. Maitena Monroyk ere argi dauka: biktima errunduntzat hartzen da, jaso duen biolentziaren erantzule eginez, bere hitzari sinesgarritasuna kenduz; erasotzailea, ordea, biktimizatu ohi da. Bi dira jomugan diren esparruak: alde batetik, legedia bera; bestetik, lege horien interpretazioa. Viaderok onartzen du araudian aurrerapauso batzuk gertatzen ari direla; arazoa, ordea, lege horien interpretazioan dago. “Auzia da kutsu matxistak erabat zeharkatzen duela legeen gainean egiten den interpretazioa, justizia, oraindik ere, perspektiba feministarik gabeko esparrua delako”.

‘La Manada’ auzia jarri du horren adibide. Baliabide faltaz ere jardun du. “Espainiar estatuan berdintasunerako eta genero indarkeriaren kontrako legeak daude. Biek izan ditzakete elementu oso interesgarriak, baina ez dute baliabide nahikorik prebentziorako, hezkuntzan eragiteko... Legea ez da betetzen”. Beste adibide bat: 2018an, oraindik ere, Espainiar Estatuko genero indarkeriaren legeak bikotekidearen edo bikote ohiaren erasoak baino ez ditu

MARÍA VIADERO: “No existe un reconocimiento político ni social. ¿Por qué no hay homenajes públicos a las víctimas de violencia de género? Porque la violencia contra las mujeres se sitúa en un nivel inferior al de las víctimas de otro tipo de violencias. Por lo tanto, no se garantiza su derecho a la memoria, la justicia y la reparación. Los Gobiernos deben asumir su responsabilidad”

aintzat hartzen. Hortaz, hainbat feminizidiok ez dute genero indarkeriaren izendapenik hartzen. Hortxe dugu Nagore Laffagaren kasua (2008).

Salatu... Eta gero zer?

“Salatu ezazu”, esaten zaie gau eta egun. Zer gertatzen da, baina, urratsa ematen dutenean? “Emakumeak dira epaituak, euren ahotsa, euren sinesgarritasuna”, dio Viaderok. Zeresanik ez migranteen kasuan, Atzerriartasun Legearekin egiten baitute topo aurrez aurre. Legea bezain zurrinak diren estereotipoei ere aurre egin behar diete. “Justizian lan egiten dutenen mesfidantza pairatzen dute, salaketa, errekurtsio ekonomikoak jasotzeko aitzakiapean jartzen dutenaren zama astuna. Aurreiritzi horiek erreproduzitzen dira, emakume izateagatik haratago, migrantea izateagatik”. Horrek emakumeei erruduntasun sentimendua eragiten die eta aurreiritziak sortzen dira ustezko salaketa faltsuekin (%0,1 baino gutxiago dira faltsutzat hartzeko zantzuak izan ditzaketenak auzitegien datuen arabera).

Prozesu integrala

“Genero indarkeria continuum bat da emakumeen bizitzan, esfera guztietan dago presente, maila ezberdinetan”, dio Viaderok. Horregatik, ezinbestekoa deritzo prozesu guztian laguntzeari. “Auzitegiak espazio arrotzak dira, erasotzaileekin topo egiten dute, epailetara joatearen beldur dira, baita ustez espezializatutako auzitegietan ere”. Estatuak, gainera, ez dituzte trantsituak errespetatzen: “Salaketa jartzen den unetik sententzia ezagutu arte epeak ikaragarri luzeak dira. Tarte horretan zaurgarritasun egoera larriar daude”. Datuak ditu lagun: 2016an eraildako emakumeen %36 salaketa aurkeztua zuen, edota genero indarkeriagatik aurrekariak erregistratuta.

Defentsarako legitimitatea

Emakumeek euren burua defendatzeko duten eskubidea bera auzitan jartzen da, Rivasen kasuan bezala, umeein ihes egiteagatik zigortua. Monroyren esanetan, beharrezkoa da biktima kategoriari buruzko eztabaida zabaltzea. Izan ere, askok salatzen

dute emakumeak betiko biktima bakarrik izatera kondenatzen dituela estatuak. Bere ustez, ordea, kontrakoa gertatzen da: Estatuak emakume askori biktima izatea ere ukatzen die, jasotako kaltearen erantzule eginez, Rivasen kasuan gertatu bezala: seme-alaben eta bere buruaren segurtasuna bermatzeko ihes egitea erabaki zuenean, biktima izatek erasotzailea izatera igaro zen, “`aita on´ batek dituen eskubideen kontra modu desproporzionalean jokatu zuelako estatuaren esanetan”. Hau da, Rivas, biktima izatek, errudun izatera igaro zen iritzi publikoarentzat.

Viaderok beste adibide bat jarri du: gurutzatutako salaketak, alegia, erasotua izan den emakume batek salaketa jartzean, gizonak ere denuntzia jartzea, emazteak erasotu duelakoan. Nahiz eta bere burua defendatzeko egin, biktima izateari utzi eta erasotzaile bilakatzen da askorentzat.

Monroyk oso arriskutsua deritzo biktima gisa ez aitortzeari. “Ez badago biktimarik, ez dago erasorik ezta erasotzailerik, beraz, ezta justizia eskatzeko aukerarik ere”. Horrek badu alboko ondorioirik: emakume askok euren burua defendatzeko gaitasunik ez dutela barneratu dute, euren burua ahultzat dute, eragiteko gaitasunik ez dutela sinestearino. Horren aurrean, dio, estatuak bere burua aurkezten du emakumeen babesle bezala, eta instituzioak emakumeen eskubideen tutore. “Estatuak eta instituzioek baino ez daukate emakumeen gainean erabakitzeke ahalmena, betiere, emakumeon ahotsari erreparatu gabe”.

Indarkeria modu berriak

“Seme-alabak instrumentalizatzen ari dira, betiere, emakumeak kaltetzeko”, dio Viaderok. Juana de Rivasen kasua dago, eta Euskal Herrian Sara Majarenas eta bere alaba Izarrena. Bada aurrekaririk: Angela Gonzalez. Alaba erail zuen bere bikotekide ohiak, Gonzalezek denuntziak jarrita bazituen ere. Bada, Nazioarteko Auzitegiak salaketa jarri dio Espainiar Estatuari, Gonzalezek errekonozimendua eta erreparaziorako eskubidea ukatzeagatik; bada, Espainiako gobernuak ez du oraindik ezer egin.



MAITENA MONROY: "Al agresor se le victimiza; en cambio, las mujeres víctimas son consideradas o bien provocadoras de la violencia que sufren, o bien débiles e indefensas, personas que el Estado e instituciones deben tutelar. Las mujeres deben ser siempre las titulares de sus derechos, no las instituciones".



Maitena Monroy

Viaderok argi dauka: "Ez dago errekonozimendu politiko ez sozialik. Zergatik ez zaie omenaldirik egiten genero bortizkeriaren biktimei? Beste biolentzien biktimen maila ezberdin batean kokatzen dituztelako". Indarkeria matxista terrorismoa ote den galdetuta, Monroyk irmo dio: "Noski baietz, elementu guztiak ditu: ideologia bat, egitura bat eta helburu politiko bat: ordena soziala eta emakumeen gaineko kontrola mantentzea". Ez da, ordea, hala kontsideratzen.

Erreparazioa, gainera, afera indibidualera mugatzen dela dio Viaderok. Kalte-ordainaz ari da, ezinbestekotzat jotzen duena, baina erreparazio kolektibo baten atarian. "Gobernuek asumitu behar dute lan hori, emakumeei euren egia aitortu".

Monroyren esanetan, zor historikoa dugu emakumeekin: errepikatuko ez dela bermatuko duen memoria kolektiboa eraikitzea. "Arlo sozial, kultural eta instituzionalean erreparazioa, errekonozimendua eta memoria lantzea zor diegu, biolentzia sexistari legitimitatea kenduko dion marko berri bat eraikitzeko". #NikSinistenDizut kanpian, adibidez, gizarte zibilak hartu du erreparazio sozialaren ardura. "Lotsaren eta erruduntasunaren estigmarekin apurtu du; biolentzia honen dimentsioa erakutsi du; eta ahizpatasun sareak sortu ditu, gutako bat erasotzen badute, denok erasotzen gaituztelako".

Auzitegi alternatiboak

Ariketa kolektiboak ere badira nazioartean mugimendu feministak sortutako emakumeen auzitegi sinbolikoak. Zer dira zehazki? Bada, auzitegien bitartez gune publiko bat sortzen da, aitormenik, ikerketarik, epaiketarik eta ordaintzarik gabe geratutako eskubide urraketak salatzeko. Mundu osoan justizia eta inpunitaterik gabe pairaturiko indarkeriak ikustarazten dira, eta, horrela, estatua salatzen da, herritar guztien eskubideen bermatzaile gisa dituen betebeharrak ez betetzeagatik. Lehen auzitegi alternatiboak Asian eta Ozeano Pazifikokoan abiatu ziren eta hedatuz joan ziren. Asian, kasu, Tokioko Auzitegia egin zen Bigarren Mundu Gerran zehar Japoniako armadak hainbat herrialdetako emakumeak sexu-esklabu izatera behartu zituela salatzeko.

Euskal Herrira ere hedatu zen ekimena. Mugarik Gabe Elkarrekin beste hainbat euskal gizarte-erregilerek in batera (23 erakunde baino gehiago, tartean ELA), "Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalherria 2013" antolatu zuen 2013ko ekainaren 7 eta 8an, Bilbon. Bertan 8 emakumek testigantza emateko balentria erakutsi zuten, auzitegiko fiskal, aditu, epaimahaikide eta abarren aurrean.

Elkarren aitortza

Ahotsa emateaz gain, euren testigantzari zilegitasuna ematen diote auzitegi hauek. "Espazio seguruak eraikiz, elkar errekonozitzen dute, biktimaz haratago, bizirautea lortu duten pertsona gisa. Zaintza bermatuta dagoen espazio batean testigantza emateak berak erreparazioa dakar. Subjektu aktibo bilakatzen dira, indarkeriatik bizirik ateratzea bera badelako ekintza aktiboa. Auzitegi alternatiboetan jauzi hirukoitzak egin dute: biktimatik bizirik irautera, bizirautetik ahalduntzera".

